ZAZPI KANPAI

Amaia Egidazu Arrube

Bizkaldatz Txikia

XIII. Haur eta Gazteen Literatura Saria

2026-2027

* Oinarrien laburpena barrualdean



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

© Amaia Egidazu Arrube, 2026
© Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia

Antolatzailea: Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Irudiak: Amaia Egidazu Arrube
Diseinua: Álex Oviedo

Lehenengo edizioa: 2026ko azaroa

LG BI 1377-2026

www.bizkaia.eus/argitalpenak

ZAZPI KANPAI

Testua eta irudiak
Amaia Egidazu Arrube

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Lur ez zen ume arrunt bat. Gainerako haurrak plazan baloiarekin, ezkutaketan edo elkar zirikatzen zebiltzan bitartean, Lur herriko horma zaharretan gora ibiltzen zen, sugandilak harrapatzen eta poto txikietan gordetzen. Armiarma hanka-luzeak, kilkerrak eta harrien arteko zirrikituetan gordetzen ziren zomorro txikiak ziren haren mundua. Arratsaldero, Lur etxera itzultzen zenean, sukaldean aurkitzen zuen amama Karmele txokolate beroa prestatzen. Amamak beti esaten zion kontuz ibiltzeko:

—Lur, ez jolastu piztiekin eta, batez ere, adi ibili muskerrekin! Gure zaharrek kontatzen zuten muskerrak, lo zaudenean, belarritik sartzen zaizkizula, eta burmuina jaten dizutela erotu arte. Horixe gertatu omen zitzaion Fermin apaizari ere, eta geroztik, lelokeriak baino ez zituen esaten. Eta okerragoa dena: muskerrek, mehatxatuta sentitzen badira, hozka egiten dizute. Eta ez zaituzte askatuko zazpi herritako kanpaiek jo arte.

Lurrek barre egiten zuen amamaren istorioekin. Baina Karmelek ez zuen txantxetan esaten, haien familiak ondo ezagutzen baitzituen kontu horiek. Izan ere, Lurren birraitona Joxe herriko azken kanpai-jolea izan zen. Garai batean oso garrantzitsua zen haien lana, eguneko martxa kanpai-hotsen arabera antolatzen baitzen.

Ezkilak eskuz jotzen ziren. Eguneko orduak adierazteaz gain, herrian beste edozer gertatuz gero, kanpai-joleak kanpandorrera igo behar izaten zuen gertatutakoaren berri emateko: sutea, ekaitza, jai-eguna, jaiotza, heriotza… Gertakari hauetako bakoitza kanpai-hots desberdin batekin iragartzen zen. Herritarrek, hotsak entzun bezain pronto, bazekiten zer gertatu zen. Amonak zioenez, birraitonak hainbat aldiz igo behar izan zuen kanpandorrera, herrian norbaiti musker batek hozka egin ziolako; izan ere, zazpi herritako kanpaien hotsak entzun behar ziren animalia askatzeko.

Baina horiek guztiak sinesmen zaharrak baino ez ziren Lurrentzat. Udazkeneko egun hartara arte, behintzat. Egun hartan, ordea, dena aldatu zen.

Amarekin eta amamarekin afalorduan izandako liskarrarekin

hasi zen guztia. Lurrek uko egin zion beste behin barazki-purea afaltzeari.

—Ez dut pure hori jango! Go-rro-to dut! —esan zuen, aurpegia okertuta.

—Lur, jan pixka bat behintzat —esan zuen amak.

—Ezta pentsatu ere!

Orduan, amak zigor zurruna jarri zion:

—Hilabete osoa gozokirik jan gabe egongo zara, eta ahaztu zaitez paga jasotzeaz.

—Zer?! —Lurrek amamari begiratu zion, laguntza eskatuz.

Karmelek maitasunez begiratu zion eta sorbaldak jaso zituen; ezin zuen amak esandakoa baliogabetu. Lur are gehiago haserretu zen. Ez zen bidezkoa, beti barazki osasungarrien kontu horrekin!

—Ez dut zure pagarik ezertarako behar! —oihukatu zuen harro. Amak ez zuen ulertzen gozokiak Lurrentzat ez zirela azukrearen kontua bakarrik: lagunekin harremantzeko modua ere bazen. Gozoki-dendan, baloirik tartean egon gabe, elkarrekin hitz egiteko aukera izaten zuten. Horregatik, ostiralero bezala, eskolatik irtetean

lagunek herriko plazako gozoki-dendara joateko esan ziotenean, poltsikoan sosik ez bazuen ere, baietz esan zuen, bera ere bazihoala.

Gozoki-dendak *Dinda-Dindai* zuen izena. Petra izeneko adineko emakume bat zen jabea, beti alkandora beltzez janzten zena. Herrian errespetu handia zioten, baina baita mesfidantza pixka bat ere. Oso berezia zen. Meriendatzeko, magdalenak patearekin bustita jaten zituen. Ezpainak etengabe miazkatzen zituen eta ez zuen inoiz alferrikako hitzik esaten. Azazkal luzeekin kokotseko iletxoak ateratzen zituen, eta haren begi irtenekin sekreturik ilunenak irakurtzen zituela zirudien. Atzerrian egon omen zen urteetan gozokigintza ikasten, eta bertan saltzen ziren litxarreria guztiak berak eskuz eginak ziren. Dendan sartzean, plazako autoen zarata bat-batean itzaltzen zen, mundu honetatik kanpoko leku bat balitz bezala, eta Petraren irrati zaharraren doinuek betetzen zuten espazioa.

Petra mostradorearen atzean zegoen, bizkarra emanda, karamelu-poteak txukuntzen. Lurrek kristalezko ontzi bitxi bati begiratu zion. Barruan gozoki berde ilun batzuk zeuden, musker formakoak, harribitxien moduko begi distiratsuekin. Sugandila-

harrapatzaile baten begietara, gozoki hori ezin erakargarriagoa zen. Ez zuen dirurik, baina bat hartzeagatik ez zen ezer gertatuko, ezta? Lurrek bazekien lapurtzen ari zela, baina berehala aurkitu zuen bere burua zuritzeko aitzakia: «Hiztegiaren arabera, zurea ez den zerbait ordaindu gabe eta ezkutuan hartzea lapurtzea da. Bai, ados, baina… Aitonak beti esaten zuen beharrizan handiren bat izanez gero aberatsei lapurtzea ez zegoela gaizki. Pobreari inoiz. Nik Petrari urrezko hagin bat ikusi nion behin. Gainera, gozokidenda bat izanda, aberatsa izango da, seguru. Eta nirea hil ala biziko beharrizana da! Egun batetik bestera azukrea uztea oso kaltegarria izan daiteke eta».

Inguruan inor begira ez zuela ziurtatu ondoren, eskua luzatu, potea ireki eta, urduritasunez, muskerra poltsikoan sartu zuen. Petrak bere zereginekin jarraitu zuen, burua biratu ere egin gabe. Kobazulo arriskutsu batetik ihes egingo balu bezala atera zen Lur dendatik eta, atea ixtear zegoela, Petraren ahotsa entzun zuen:

—Laster arte, Lur!

Kalerako bidean, Lurrek ezin izan zion tentazioari eutsi. Urduri



zegoen. Bere lehenengo lapurreta egin berri zuen eta munduko gozokirik bitxiena poltsikoan zeukan. Lagunen aurrean, sakeletik muskerra atera eta denak ahozabalik geratu ziren:

—Dendako gozokirik garestiena erosi duzu!

—Nik ere begia jo diot horri!

—Bua, mundiala egongo da!

Lurrek irribarre egin eta gozokia ahoan sartu zuen, zigorra haustearen plazeraz. Baina une berean…

—Puaj!!!

Muskerrak ez zuen espero zuen menda- edo marrubi-zapore gozorik. Etxeko barazki-purearen zaporea zuen! Likatsua zen, gainera!

Eztul eginez, disimuluz, gozokia berriro poltsikoan sartu zuen.

—Banoa etxera. Eztula sartu zait, agian gaixotzen ari naiz…

Etxera iritsi zenean, etxekoei jaramonik egin gabe, logelan giltzatu zen. Amak eta amamak bazekiten gozokirik gabeko lehenengo ostirala izanik, haserre agertuko zela etxean, eta lasai uztea erabaki zuten. Gaua amesgaiztoz betea izan zen: muskerrak, begi irtenak,

lapurreta, gozokiak, purea, kartzela, iluntasuna... Asaldaturik eta izerditan blai esnatu zen.

Egun argia zen, eguzki-printzak sartzen baitziren pertsianaren bitarteetatik, baina zerbait arraroa sumatu zuen giroan: ezohiko isiltasuna zegoen, isiltasun pisutsua. Bere bihotzaren taupada azkarrak baino ez zituen entzuten.

Logelako argia pizten saiatu zen, baina bonbila itzalita zegoen. Isiltasuna jasanezina egiten ari zitzaion, eta irratia martxan jartzen saiatu zen, arrakastarik gabe. Aurreko eguneko arropak jantzi eta sukaldera jaitsi zen. Gosaria mahai gainean zegoen: amaren kafe-katilua erdi hutsik, eta Karmeleren ogi txigortua platerean. Baina ez bata eta ez bestea ez zeuden sukaldean.

—Ama? Amama?

Erantzunik ez. Amaren poltsa eta amamaren makila etxean zeuden. Beraz, ez ziren inora joan. Edo, behintzat, ez beren borondatez.

Kalera atera zen korrika. Kanpoan ez zegoen inor. Ez pertsonarik, ez autorik martxan, ez txakurrik zaunkaka, ez haize zipitzik ere.

Dena geldik zegoen, argazki bat balitz bezala. Futbol zelairaino joan zen abiada bizian; han egongo ziren herriko umeak, baina alferrik: lagunen jertseak lurrean zeuden eta baloia zelaiaren erdian geldirik. Mundua hustu egin zela zirudien.

Izututa, etxera itzuli zen berriz ere. Ispiluaren aurrean jarri zenean, Lurren arnasa gelditu egin zen. Hura sinesgaitza zen: musker bizi eta berde bat bere eskuineko belarriari helduta zegoen, dirdiraz, azalean hortz txikiak sartuta. Lurrek poltsikora eraman zuen eskua, dardarti, ez zegoen aurreko egunean ostutako gozoki bitxia… benetako muskerra zen! Lurrek piztiari tiratu zion, baina ezinezkoa zen animalia askatzea belarria alderik alde urratu gabe. Une horretan, amama Karmeleren ahotsa etorri zitzaion gogora: «*Muskerrak belarritik sartzen zaizkizu, eta burmuina jaten dizute erotu arte*».

—Ai, ene! Musker honek bart gauean garuna jan badit… Agian erotzen ari naiz! —oihukatu zuen Lurrek, ikaratuta.

Bere burua frogan jartzea erabaki zuen, burmuinak ongi funtzionatzen ote zion ziurtatzeko. Ispiluari begiratu eta galdera

azkarrak egiten hasi zitzaion bere islari: «Zenbat da bi gehi bi? Lau. Nor da Frantziako presidentea? Eeee... Ez dakit, baina hori lehen ere ez nekien! Nola du izena auzokoaren txakurrak? Zoli! Ondo, oraindik ez naiz erotu... baina nola askatuko dut narrasti hau?»

Orduan, amamaren hitzak gogoratu zituen berriro: «*Ez zaituzte askatuko zazpi herritako kanpaiek jo arte*».

«Ai, ene! Azken kanpai-joleak desagertu egin ziren eta herrietako kanpai asko isildu ziren. Gaur egun gehienek modu automatikoan funtzionatzen dute, baina argindarra desagertu da! Gainera, nork arraio jakingo du zein kanpai-hots dagokion gertaera bakoitzari? Karmelek beti esaten dit birraitona Joxe hil zenean jakinduria oso bat desagertu zela berarekin... Eta zazpigarren herriko kanpaia tximista batek hondatu zuenetik, sei besterik ez dira geratzen. Akabaturik nago!», pentsatu zuen etsirik.

Une horretan, kanpoan, hots indartsu batek hautsi zuen isiltasuna:

DONG.

Herriko elizako kanpaia zen. Baina nork jo zuen?

Lehenengo kanpai-hotsarekin batera, zerua ilundu egin zen. Eklipsearen antza zuen, eguzkia bat-batean itzali balitz bezala. Gaua zirudien. Belarriko muskerra estutu egin zitzaion, min handiagoa eginez. Lurrek leihotik begiratu zuen. Herri ilun, huts eta gris hartan, argi epel bakarra ikusi zuen piztuta: herriko plazan.

Baina zerbait ikusi zuen plazaren erdian. Urrutitik, pertsona baten silueta zirudien. Begiak estutu zituen, baina ez zuen ezer bereizten. Lur harantz abiatu zen, lagunduko zion norbait aurkituko zuen itxaropenez.

*Amaia Egidazuren ipuin honi amaiera eman nahi bazaio, irakurri hurrengo orrialdetako oinarrien laburpena.

BizkaIdatz Txikia 2026-2027 Haur eta Gazteentzako Literatura Sariaren
XIII. edizioaren oinarri arautzaileen laburpena
EUSKARAZko hizkuntza-modalitatean parte hartzea:
Amaia Egidazu Arrube idazlearen "ZAZPI KANPAI" izeneko kontakizuna

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, Bizkaiko Foru Liburutegiak antolatutako BizkaIdatz Txikia Haur eta Gazteentzako Literatura Sariaren urteroko deialdiaren bidez, gure lurraldeko ikasleen sorkuntza eta talentu literarioa bultzatu eta sustatu nahi du.

PARTE-HARTZAILEAK:

Bizkaiko udalerriren batean, edozeinetan, kokatutako ikastetxeren batean ikasten ari diren 16 urte beteta dituzten arteko haur eta gazteek har dezakete parte lehiaketa honetan; horretarako, **jatorrizko eta banakako lanak** aurkeztu beharko dituzte, euskaraz zein gaztelaniaz, honako lau kategoria hauetako batean:

HAUR kategoria, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. ikasturteetako ikasleak (I. taldea).
HAUR kategoria, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. ikasturteetako ikasleak (II. taldea).
GAZTE kategoria, Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. ikasturteetako ikasleak (III. taldea).
GAZTE kategoria, Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. ikasturteetako ikasleak (IV. taldea).

Eskatutako betekizunak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean egiaztatu behar dira.

Lehiaketan parte hartzeak oinarri arautzaileak erabat onartzea dakar.

*Deialdi honen aurreko edizioan haur edo gazteen edozein kategoriatan saritutako neskamutilek eta gazteek sarituak izan ez diren hizkuntza-modalitatean (euskara edo gaztelania) baino ezin izango dute parte hartu literatura-sariaren deialdi honetan.

KONTAKIZUNEN EZAUGARRIAK:

1.) Sari honetan parte hartu nahi duten haurrek eta gazteek gaur egungo idazle batek proposatutako bi hastapenetako bataren bati jarraipena ematen dioten literatura-kontakizunak aurkeztu ahal izango dira, batak gaztelaniaz eta besteak euskaraz; beraz, hasiera horretara, haren pertsonaietara eta egoeretara egokitu behar dira kontakizunak.

Euskarazko modalitatean parte hartuz gero, Amaia Egidazu Arrube idazlearen **"ZAZPI KANPAI"** izeneko kontakizunaren hasiera jarraitu beharko da.

Gaztelaniazko modalitatean parte hartuz gero, Beatriz Rioja Espejo-Saavedra idazlearen **"LA DAMA DE LAS POSTALES DE NAVIDAD"** izeneko kontakizunaren hasiera jarraitu beharko da.

2.) Parte-hartzaile bakoitzak nahi duen beste lan aurkez dezake.

Euskara eta/edo gaztelania modalitatean aurkez dezakete, eta, epaimahaiak horrela erabakitzen badu, pertsona berak bi modalitateetan irabazteko aukera izango du.

Euskarazko kontakizunaren hasiera aukeratuz gero, kontakizunak euskaraz jarraitu behar izango du; gaztelaniazkoa aukeratuz gero, berriz, gaztelaniaz.

3.) Kontakizunen luzera gutxienez 4 orrialdekoa eta gehienez ere 5 orrialdekoa da. Eskuz idatzita egon beharko dira, letra argiarekin, edo ordenagailuz idatzita, "Times" edo "Arial" letra-tipoarekin, 12ko tamainarekin eta lerroarte bikoitzarekin, DIN A4 tamainako orrietan.

Kontakizunak aurkezteko, izenburua adierazi beharko zaie, orrialde guztietan zenbakituta, sinatu gabe, eta egilea identifikatu gabe.

Lan originalak izan beharko dira, parte-hartzaileek idatzitakoak, norberak eta banaka sortuak, debekatuta egongo da adimen artifizialeko tresnak edo antzeko teknologiak erabiltzea, eta ez dira argitaratu ez osorik, ez partzialki.

AURKEZTEKO EPEA:

Eskabideak, literatura-kontakizunekin batera, aurkezteko epea oinarri arautzaileak eta deialdi hau **Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu** eta **hurrengo egunean hasiko da, eta 2027ko otsailaren 16an amaituko da,** biak barne.

AURKEZTEKO LEKUA ETA MODUA:

Lehiaketa honetan aurkezteko eskabideak, literatura-kontakizunekin batera, aurkeztu ahal izango dira honako bide hauetakoren bat erabiliz:

- **Aurrez-aurrez: Paperezko formatuan** aurkeztu ahal izango da, Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean – Laguntza Bulegoan (Diputazio kalea, 7, Bilbo) edo beste edozein erregistrotan, edo urriaren bateko 39/2015 Legearen (APAPEL) 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bulegotan (beste erregistro publikoak eta Posta-bulegoak). **Eredu ofizial**ean aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta webgunearen bidez eskuragarri:

https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia

-Elektronikoki: aukera egongo da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez:

https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

* Kasu guztietan, adingabeei zuzendutako literatura-lehiaketaren deialdia denez, **literatura-kontakizunaren egilearen (adingabea) guraso-ahala edo legezko tutoretza duenak** (ama, aita edo legezko tutorea) sinatu beharko ditu eskabideak, eta hura hartuko da **eskatzaile**tzat.

* Eskabideak, literatura-kontakizunekin batera, parte-hartzaileak eskolatuta dauden **ikastetxeek entregatzen badituzte**, paperean bakarrik entregatu eta aurkeztu ahal izango da, eta ama, aita edo legezko tutorea izango da eskatzailea, eskabidearen sinatzailea.

SARIAK:

Literatura-kontakizun irabazleen **egileek**, bi hizkuntza-modalitateetako (euskaraz eta gaztelanian) lau kategorietan, tableta eta diploma bana jasoko dute.

Gainera, hizkuntza-modalitate bakoitzean, oinarri arautzaileetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituen **ikastetxe**a sarituko da (14.2. oinarria: Literatura-kontakizun gehien aurkeztea, betiere gutxienez bost aurkeztu badira), eskola-materialerako opari-bonu bat jasoko du, 2027ko abenduaren 31ra arte erabili ahal izango duena.

Oinarri arautzaileetan aurreikusitakoaren arabera, sari bakoitza eman gabe utzi ahal izango da aurreikusitako baldintzaren bat betetzen ez bada.

Lan sarituak, kontakizunen hasierako bi istorioekin batera, ondore horretarako egingo den edizio batean argitaratuko dira, paperezko bertsioan zein bertsio digitalean, eta bertsio digitala Bizkaiko Foru Liburutegiaren webgunean argitaratuko da:

https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia

SARIAK BANATZEKO EKITALDIA:

Sariak beren-beregi horretarako antolatuko den ekitaldi batean banatuko dira. Ekitaldi horren berri emango zaie irabazle guztiei, bai eta oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzeagatik sarituak izan behar duten ikastetxeei ere.

EPAIMAHAIA:

Sariak emateko, deialdi honen ondorioetarako izendatutako epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahai honek aztertuko ditu epearen barruan aurkeztutako kontakizunak, eta haren iritziz modalitate bakoitzeko kategoria bakoitzean, euskaraz edo gaztelaniaz, puntuaziorik altuenak lortu dutenei emango dizkie sariak. Gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira, eta puntuok erabakitzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan: Proposatutako kontakizunari emandako jarraipena eta harekiko batasuna (4 puntu, gehienez), Kalitate literarioa (3 puntu, gehienez) eta istorioaren garapenean izandako sormena (3 puntu, gehienez).

Edizio honetan hurrengo epaimahaikideek osatuko dute epaimahaia:

- Gaztelaniazko modalitatean: Beatriz Rioja Espejo-Saavedra, Xandra Bilbao Sánchez eta Elena Sierra Aguirre.

- Euskarazko modalitatean: Amaia Egidazu Arrube, Idoia Barrondo Etxebeste eta Idoia Carramiñana Miranda.

Ordezko epaimahaikideek: Begoña Elorrieta Puente (gaztelaniaz) eta Andoni Abenójar Martínez de Eulate (euskaraz).

EBAZPENA:

Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua posta ziurtatu bidez jakinaraziko zaie deialdi honetarako eskabidea aurkeztu duten pertsonei, salbu eskabidea Bizkaiko Foru Al-

dundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu dutenei, egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez jakinaraziko baitzaie.

JABETZA INTELEKTUALA:

Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik izango ditu saritutako lanak ustiatzeko eskubideak, egileak, haien legezko ordezkaritza duten pertsonen bitartez (literatura-lehiaketa honetan parte hartzeko eskaera sinatu duen ama, aita edo legezko tutorea), ados egon beharko dute ondorio horietarako, oinarri arautzaileetan jasotako baldintzen arabera (16. oinarria).

AHOLKULARITZA ETA INFORMAZIO OSOA:

Deialdi honi buruzko zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza teknikoa edo aholkularitza emango ditu Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak, Bizkaiko Foru Liburutegiaren bidez.

Horretarako, helbide hau dago web orrian:

https://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndarea

Oinarri arautzaile osoak eta deialdi honi buruzko informazio guztia kontsultatu ahal izateko eskuragarri dago Bizkaiko Foru Liburutegiaren webgunean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan:

https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia

https://www.ebizkaia.eus

www.bizkaia.eus/argitalpenak